

Olaeta eta Armeria Plazak Berrurbanizazioa. Partaidetza Prozesua. PROCESO PARTICIPATIVO. 2026ko MARTXOA/MAIATZA

PLAZATIK, PLAZARA

PARTAIDETZA PROZESUA. PROCESO PARTICIPATIVO.

2026ko MARTXOA/MAIATZA

OLAETA ETA ARMERIA PLAZEN BERRURBANIZAZIOA
REURBANIZACIÓN DE LAS PLAZAS FERRERÍAS Y ARMERÍAS

1.4 Partaidetza prozesuaren emaitza eta diseinuaren zirriborroa
Resultado del proceso de participación y borrador del diseño

www.donostia.eus/olaetarmeria



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



leku studio

TESTUINGURUA

Donostiako Udalak Amara Berri auzoko Ferrerías eta Armerías plazak berrurbanizatuko ditu.

Leku Studio arduratuko da proiektua idazteaz, eta prozesuaren barruan herritarren parte-hartzea sustatu da, behin betiko diseinua zehaztu aurretik auzotarren ideiak, beharrak eta proposamenak jasotzeko.

2026ko martxotik maiatzera bitartean, Lur Studiok dinamizatu du partaidetza prozesua, Udaleko Proiektu eta Obretako arloarekin, Herritarren Partaidetza Zerbitzuarekin eta Auzoetako Zinegotzigoarekin elkarlanean.

CONTEXTO

El Ayuntamiento de San Sebastián reurbanizará las plazas Ferrerías y Armerías, en el barrio de Amara Berri.

Leku Studio será el encargado de redactar el proyecto y se ha diseñado un proceso de participación ciudadana para recoger ideas, necesidades y propuestas vecinales antes de definir el diseño final.

Entre marzo y mayo de 2026, Lur Studio ha coordinado este proceso junto al área municipal de Proyectos y Obras, el Servicio de Participación Ciudadana y la Concejalía de Barrios.

DOKUMENTU HONEN EDUKIA

CONTENIDO DE ESTE DOCUMENTO

- 1.4** Partaidetza prozesuaren emaitza eta diseinuaren zirriborroa
Resultado del proceso de participación y borrador del diseño

PROZESUKO BESTE DOKUMENTUAK / OTROS DOCUMENTOS DEL PROCESO

- 1.1** Partaidetza prozesuaren helburu eta ekintza nagusiak
Objetivos y acciones principales del proceso participativo

- 1.2** Partekatutako Diagnostikoa
Diagnóstico compartido

- 1.3** Partehartzaileen proposamenak
Propuestas de las participantes

INFORMAZIO EGUNERATUA
www.donostia.eus/olaetarmeria
INFORMACIÓN ACTUALIZADA

05

ONDORIOAK RESULTADOS

ARMERIA PLAZA PLAZA ARMERÍAS

Herritarren partaidetza-prozesuan egindako ekintzetan lortutako emaitzak aztertu ondoren, honako gai hauek ondoriozta ditzakegu:

- Plazan **disuasio-espazio bat sortzea** izan zen parte-hartze prozesuan adostasun handiena izan zuen proposamenetako bat. Espazio horretan, pertsona kopuru handirik ez elkartzeko, horiek plazaren bizilagunei eragin diezaieketen eragozpenengatik. Hainbat elementu proposatu ziren, hala nola lorategi handi bat eta altuera txikiko bankuak.
- **Argiztapena hobetzeari** dagokionez, sentsoredun argiak proposatu ziren, baita arkupeen barruan argiztapen handiagoa ere.
- Lurpeko **garajeetako arnasguneen eraldaketa**, parte-hartzaileen artean erabateko adostasuna izandako proposamena izan zen, pertsonen finkatzea eta pilotzea saihesteko.
- **Plazaren sektoralizazioari** dagokionez, larrialdi-zerbitzuetako ibilgailuek sarbide erraza izango duten espazio baten beharra azpimarratu zen.

Tras analizar los resultados obtenidos en las distintas acciones realizadas en el proceso de participación ciudadana, podemos concluir las siguientes cuestiones:

- La **creación de un espacio disuasorio** en la plaza, donde no se acumulen grandes cantidades de personas por las molestias que estas puedan ocasionar a las personas vecinas de la plaza, fue una de las propuestas que más consenso tuvo en el proceso de participación. Se propusieron elementos como un gran jardín y bancos de poca altura,.
- Respecto a la **mejora de iluminación**, se propusieron luces con sensores, así como una mayor iluminación dentro de los soportales.
- La **transformación de los respiradores de los garajes subterráneos**, fue una propuesta con un consenso total entre las personas participantes, con el fin de evitar el asentamiento y hacinamiento de personas.
- En cuanto a la **sectorización de la plaza**, se subrayó la necesidad de un espacio en el que los vehículos de servicios de emergencia, tengan un fácil acceso.

OLAETA PLAZA

PLAZA FERRERÍAS

Herritarren partaidetza-prozesuan egindako ekintzetan lortutako emaitzak aztertu ondoren, honako gai hauek ondoriozta ditzakegu:

- Adostasun handiarekin, alde batetik, **argiztapena hobetzea** proposatu zen, plazan segurtasun pertzepzio handiagoa lortzeko. Bestalde, **parkearen eremua berritzea** proposatu zen, elementuak berritu ahal izateko, zahartzen ari direla kontuan hartuta.
- Argiztapena hobetzeari dagokionez, **zuhaitzak integratzea, mantentzea eta zaintzea** nabarmendu zuten, kontuan hartuta, batzuetan, zuhaitzek argiztapena zailtzen dutela.
- Zuhaitzak zaintzeari dagokionez, Olaetako sarrerako **palmondoa**, 5,7 eta 9 atariak, **lekuz aldatu** beharra nabarmendu zen, bertatik igo eta etxebizitzetan sartzen diren karraskariak direla eta. Karraskariei dagokienez, **zakarrontziak birkokatzea** proposatu zen, baita espazioa lurperatzea eta gunea egurrez hesitzea ere.
- **Hiri-altzariak eta komun publikoa hobetzea eta espazioa berrantolatzea** ere lehenetsitako proposamenak izan ziren parte hartu zuten pertsona guztientzat.
- Plazak, **disuasio eta diseinu erraza** izatea lehenetsi zen; berdeguneak, hiri-altzariak, espazio gardenak, lorontziak atarietan, haurrentzako guneak eta argiztapen gehiago izanda. **Plaza berrurbanizatu arte, aurreikusitako karpa jartzeko itxaron** behar zela azpimarratu zen.

Prozesuan zehar egin ziren hainbat partaidetza-ekintzen bidez, Anoeta futbol-estadioko **partida egunetan plazan erabileraren aurrean herritarrek konponbide bat behar zutela adierazi** zuten.


Hala eta guztiz ere, dokumentu honek berrurbanizazio-proiektuan lagundu nahi du, auzotarren beharrei erantzun ahal izateko, teknikoki eta ekonomikoki ahal den neurrian.

Tras analizar los resultados obtenidos en las distintas acciones realizadas en el proceso de participación ciudadana, podemos concluir las siguientes cuestiones:

- Con un gran consenso, por un lado, se propuso **mejorar la iluminación** para así obtener una mayor percepción de seguridad en la plaza. Por otro lado, se propuso la **renovación de la zona del parque**, de manera que los elementos puedan ser renovados teniendo en cuenta su envejecimiento.
- En relación a la mejora de la iluminación, destacó la **integración, mantenimiento y cuidado de los árboles**, teniendo en cuenta que, en ocasiones, estos dificultan la iluminación.
- En cuanto a cuidado de árboles, se hizo hincapié en la necesidad del **traslado de la palmera** de la entrada de Ferrerías, portal 5,7 y 9, debido a los roedores que trepan por ella y se cuelan en las viviendas. En relación a los roedores, se propuso **reubicar los contenedores** e incluso soterrar y vallar con madera el espacio.
- La **mejora de del mobiliario urbano y baño público**, así como la **reorganización del espacio**, fueron también propuestas prioritarias para todas las personas que participaron.
- Se priorizó que la plaza tuviese un **diseño fácil y disuasorio**; con zonas verdes, mobiliario urbano, espacios diáfanos, jardineras en los portales, zonas para niños y niñas y más iluminación. Se hizo hincapié en **la necesidad de esperar a colocar la carpa prevista**, hasta que se reurbanizara la plaza.

Mediante diferentes acciones de participación que se llevaron a cabo durante el proceso, se **manifestó la necesidad** por parte de la ciudadanía de una **solución ante la utilización masiva de las plazas los días de partidos** en el estadio de fútbol Anoeta.

Con todo, este documento pretende contribuir al proyecto de reurbanización para poder responder a las necesidades de las personas vecinas, en la medida que sea posible técnica y económicamente.



OLAETA ETA ARMERIA PLAZEN BERRURBANIZAZIOA

REURBANIZACIÓN
DE LAS PLAZAS
FERRERÍAS Y ARMERÍAS

Partaidetza Prozesuaren
ondorengo

diseinuaren zirriborroa

Borrador del diseño
tras el proceso

de participación

MAIATZA

2026

MAYO

HURRENGO PAUSUAK

Maiatza eta ekainean zehar udal sail ezberdinek txosten teknikoak osatuko dituzte.

Uda baino lehen, Udalak herritarrei irekitako beste bilera bat egingo du Olaeta eta Armeria plazen berrurbanizaziorako proposatutako diseinu orokorra aurkezteko.

PRÓXIMOS PASOS

Durante mayo y junio las distintas áreas municipales completarán sus informes técnicos.

Antes del verano, el Ayuntamiento celebrará una nueva reunión abierta para presentar a la ciudadanía el diseño general propuesto para la reurbanización de las plazas Ferrerías y Armerías.